

# 3052

## IKAS UNITATEA

### AURKIBIDEA

- > Sarrera
- > Helburuak
- > Nori dago zuzenduta?
- > Metodologia
- > Gaitasunak
- > Lan-proposamena. Egitura
  1. “El Dorado”
  2. Noranzkorik gabeko Odisea
  3. Europako errealitate ankerra. Errealitatearekin talka egitea
  4. Mamadou solidariora
  5. Epilogoak. Itzuli. Itzulera
- > Etorkizuna? Ametsei segika
- > Topaketa baten istorioa
- > Ebaluazioa egiteko
- > Ikasketa eta Zerbitzu solidarioraren metodologiaz gehiago jakiteko

## 3052

### Amets bati segika. Ez dago gizaki ilegalik

**3052. *Persiguiendo un sueño*** Mamadou Dia senegaldar gaztearen kontakizuna da. 2006ko maiatzean, bizitza goitik behera aldatuko zion bidaia batean murgildu zen Mamadou, beste 83 pertsonarekin batera, «Europako ametsa» bizitzeko asmoz. Ezagutza hori soinean, horrelako esperientzia bat bizitzea zer den kontatzen digu Mamadouk, lehen pertsonan, kontakizun honetan. Pateran egindako bidaiako bizipenak eta emozioak kontatzen dizkigu, bai eta bere aberrri berrian bizitza-proiektu bati ekiteko saiakera ere. Batzuetan, bidaia bera bezain gogorra izan da. Orrialde horiek irakurtzea oso argigarria eta lagungarria izango zaigu gogoeta egiteko, geure bizitzari buruz eta partekatzen dugun mundu honi buruz, gutariko bakoitzaren ekintza onak behar dituen mundu honi buruz.

Ikas-unitate hau lan-proposamena da Mamadou ren bizikizunak guri hurbilarazteko. Halaber, liburu honek iradoki ditzakeen eztabaida eta gogoetak bultzatu nahi ditu ikasgeletako ikasleen artean.

*“Immigrazioaren errealitatea ez ohi da kontatu. Migratzaileei kostatu egiten zaie kontatzea zeinen gaizki pasa duten, sarritan erabat lotsagorriturik. Nik, ordea, kontatzeko erabakia hartu nuen, hona iritsita egundoko ezustekoa hartu nuen eta. Ez nuen uste hain txarto egongo nintzenik. Gainera, banekien jende asko hona etorri nahi zuela eta hauxe pentsatu nuen: nik, behintzat, neure istorioa idatziko dut, haiek jakin dezaten zer duten zain.”*



# PROLOGO

Mendebaldeko oso modu desitxuratu irudikatzen dugu Afrika. Oso gutxi edo ia ezer gutxi dakigu, duela lau milioi urte gure arbasoak jaiotzen ikusi zituen milaka urteko kontinentari buruzko historiaz, ezta gaur egungoaz ere.

Afrika ezezaguna da. Neurtezina den aberastasun kultural izugarria du. Saharar Afrika eta Saharaz hegoaldeko Afrika artean banandutako 3.000tik gora talde etniko daude. Munduko bigarren kontinentea da populazio indigena gehien duena. 2000 hizkuntzatik gora hitz egiten dira. 1.300 milioi biztanlerekin, munduko biztanleriarik gazteena du Afrikak, Europaren kontra hain zuzen ere. Eta, hori guztia, 54 herrialdeetan bananduta. Herrialde horietan, oraindik ere, kolonialismo garaian ezarritako mugek dira.

Magrebeko historiaren zati bat ezagutzen dugu, Egipto zaharraren historia eta baita Nubiako faroiena ere, baina gutxi edo ia ezer gutxi dakigu Afrikako beste kultura esanguratsu batzuei buruz. Malikoa bezalako inperioari buruz adibidez, XIII. mendean giza eskubideen lehenengo adierazpena jaiotzen ikusi zuena. Songhai eta Ghanako inperioak, Aksumeko erreinua eta beste asko. Erreinu, inperio eta herri hauek guztiek haien egitura ekonomiko, politiko, sozial eta kultural propioak zituzten. Gizaki zuriaren etorrerarekin baina, garapeneko egitura eta patro guztiak kaltetuta suertatu ziren. 4 mendetan zehar, Europak ia 10 milioi pertsona atera zituen Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta kolonia amerikarretan lanean jarri zituen esklabotzat hartuta.

Afrikak beti eraman zuen alderik okerrera Europarekin izan zuen harremanetan. XIX. mende bukaeran esklabotza garaiaren amaiera etorri zen, baina, orduan, Europak kontinente osoaren kolonizazioari ekin zion; ez da zaila irudikatzea nola lortu zuen.

XX. mendean mundu mailako bi guda europarrak izan ziren eta milaka afrikar behartu zituzten soldadu bezala parte hartzera. Haietako askok Europa hotzean aurkitu zuten heriotza. Emakume asko tropa haien nahiak asetzera behartu zituzten. Gizaki zuriarekin hasieratik izan ziren topaketa edo talkekin hasi zirenetik, beti egon izan dira Afrikan pertsonak, Anne Zingha erregina bezalakoak (1583-1663), Europako inbasioaren aurka azaldu zirenak. Kontinente zaharraren makineriak, ordea, matxinada haiekin guztiekin bukatzea lortu zuen. Horrela bada, XX. Mendean erdi aldera izan zen Afrikako herrialde gehienek independentzia lortu zutenean; batzuk modu baketsuan, eta, beste batzuk, metropoliekin izandako borroka handiekin.

Gehienetan, Afrikaz hitz egiten digutenean, zorigaitzezko ukituarekin hitz egiten digute: gudak, goseteak, izurriteak ... kontinentari buruz dugun ikuspegia desitxuratu duten irudiak izaten dira beti. Nortzuk dira baina, hango idazleak, olerkariak, zientzialariak edo zinegileak? Ez dakigu.

Historian zehar mendebaldeko zineak ez du batere lagundu kontinentea hobeto ezagutzeko. Pertsonaia nagusia pertsona zuria izan duten pelikulak izan dira gehienetan; paisaia exotikoa erakusten zuten pelikulak, benetako irudiaren oso urruneko irudia erakusten zuten pelikulak.

Historia afrikarrak bazterteaz gain, antzezle afrikarrak ere, baztertu egiten dituzte. Antzezle afroamerikarrek behin baino gehiagotan salatu izan dute baztertu egin dituztela zinean. 2016an adibidez, Hollywoodeko Oscar sariak boikotatu egin zituzten arrazoi horrengatik. Espainian ere, antzezle beltzek agerikotasun handiagoa aldarrikatu dute zinean, telebistan eta antzerkian. Arrazarekin lotutako betiko estereotipoetatik haratagoko paperak aldarrikatzen dituzte. Bestalde, zine afrikarra, deskolonizazioarekin jaiotakoa, jaialdi batzuetan ez bada, guztiz baztertua dago mendebaldeko pantailetan.

Gaur egun, alderdi politiko batzuek eta Europako gobernu batzuek, Afrikarekin dugun zorra alde batera utzita, immigrazioa erabiltzen dute eztabaidarako. Ez dute ezer aipatzen kontinente zaharrari egiten dioten lehengaien arpilatzeari buruz: uranioa, Europako zentral nuklearrentzat; koltana, telefono mugikorrentzat; urrea, kobrea, manganesoa, banadioa, burdina, egurra, arrantza eta abar. Kanpoko herrialde asko ura eta lurrak erosten ari dira Afrikan. Afrikak irabaziak ematen dizkie Europako bankuei. Politikari arduragabe askok beldurtu egiten dute biztanleria immigrazioari buruzko berriekin, bestelako informazioa ezkatatuta. 2018an, 150.000 inguru etorkin heldu ziren Europara hainbat kontinentetatik. Kopuru hori txikia da, kontuan hartzen badugu, munduan batetik bestera mugitzen diren 65 milioietatik herena hartzen duela Afrikak.

Orain dela 30 urte lehenengo ontziak heldu zirenean konturatu ginen Afrika ez zegoela hain urrun. 30 urteko sufrimendua izan da, hesi zeharkaezinak, kontzertina zorrotzak, ur hotzetako heriotzak, giza eskubideen urraketak, bizi hobe baten bila datozen emakumeen bortxaketak ematen hasi zirenetik. Topikoak apurtzeko garaia da, gehiago eta hobeto ezagutzeko garaia da, kontinentearekin komunikazio berri bat izaten hasteko garaia da. Hasteko, 3052 kilometro dituen bidaia luze bat proposatzen dizugu; gure lagun eta komunikatzaile senegaldarra den Mamadou Diaren eskutik bidaia hau egitea proposatzen dizugu. Baliteke, lehenengo aldia izatea idazle beltz batek idatzitako liburua irakurtzen duzuna; espero dugu, azken ez izatea. Presta zaitetz beraz, ontzi berezi honetan Mamadourekin batera bidaia honetan ontziratzeko. Bidaia on!!

J. Carlos Vázquez Velasco  
Zuzendaria

Kultura Communication Desarrollo "KCD" ONGD  
Bilboko "Film Sozialak" Zine Ikusezinaren Nazioarteko  
Jaialdia

# SARRERA

Udalak izanik herritarrengandik hurbilen dauden entitateak, egun bizikidetza arazo frankori aurreegin behar izaten diote. Izan ere, bizikidetza hori gero eta zailagoa da lortzen. Beraz, gaur egungoegoera nahaspilatsuak duen erronka ugariri erantzun egokia emateak bestela pentsatu eta jokatzera behartzen gaitu ezinbestez.

Horren harira, herritarren inplikazioak jarrera aktiboa, parte-hartzailea eta arduratsua eskatzen du, gizarte inklusibo baten barruan egongo bagara. Horrek guztiak gizarte-eredu bat sortu behar du, bizikidetzan, gatazkak konpontzeko arretan, elkarrizketan eta hurkoarekiko errespetuan oinarriturik, betiere bakearen aldeko kultura sustatuz eta giza-eskubideak errespetatuz.

Portugaleteko Udalak, erantzukizun horretaz jabetuta eta erakunde publikoek gizartean parte-hartzearen benetako kultura garatze aldera gizarte osoaren lidergoa eraman behar dutelakoan, ardura osoa hartu du bere herritarren artean bizikidetza bultzatu eta hobetzeko asmoz. Horiek horrela, prozesu askotarikoak abian jarri nahi ditu, helburua gogoeta eta herritarren parte-hartzea sustatzea delarik eta beste ekintza estrategiak batzuk antolatu nahi dituelarik.

3052. Persiguiendo un sueño Senegalgo Hahatay Son Risas de Gandiol elkartearen proiektuetako bat da. Portugaleteko Udalak elkarlanean dihardu elkarte horrekin, bai eta, 2017az geroztik, KCD GGKEk ere.

3052 ikas-unitateak Mamadou Diaren kontakizuna du abiaburu, ikasleek zein irakasleek gogoeta egin dezaten.



## HELBURUAK

- > Behin testua irakurrita, elkarrekin eztabaida eta gogoeta egitea.
- > Paralelismoak topatzea eta egilearen eta ikasgelako gazte parte-hartzaileen artean erkatzea.
- > Pertsonen bizi-proiektuez gogoeta egitea.
- > Ikasgeletan migratzaileen mugimenduei buruzko eztabaidak sartzeari. Batez ere, kulturartekotasuna eta errealtatearen gaineko ikuskera sustatu nahi ditugu.

## NORTZUK DIRA HARTZAILEAK?

DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleak.

## METODOLOGIA

Ikaskuntza signifikatiboaren abiaburuak ikasleak dakiena da. Honenbestez, ataza zein jardueraren parte-hartzaile askotarikoak baliatuta eta ikasleen sinesmenak oinarri hartuta, bizikidetzaren eta gizarte-bakearen aldeko jarrerak bereganatzea nahi dugu.



# GAITASUNAK

Ikas-unitate honetan landuko diren gaitasunak honako hauek dira:

- a) Gaitasun komunikatiboa, linguistikoa eta literarioa: entzun, mintzatu, hitz egin, irakurri eta idatzi.

Ikas-unitatea eztabaida eta gogoeta bultzatzean datzala kontuan hartuta, ahozko gaitasunak eta trebetasunak sakondu nahi ditugu.

Horretarako, honako estrategia komunikatibo hauek jorratuko ditugu: argudioak emateko gaitasuna, asertibitatea, ideiak argiro azaltzea, entzuketak aktiboa, komunikazio arin eta adimentsua eta ideiak adieraz teko trebetasuna.

- b) Gaitasun teknologikoa.
- c) Gaitasun emozionala: enpatia, pertsonen arteko harremanak eta emozioen adimena.
- d) Gaitasun soziala eta herritartasunari begirakoa: bizikidetza, parte-hartzea, ikuspuntu kritikoa, babilioen araberako jardunbidea, gizartearen ezagutza eta interakzioa.

# LAN-PROPOSAMENA

## Egitura

**3052** liburuak egitura zirkularra du. Kontakizuna testigantza bat da; ez du, beraz, helburu literario jakirik. Ondo antolatutako kontaketa baten arkitekturarik ez izanik ere, hasiera eta amaiera elkar lotuta daude. Protagonistaren bizikizunak atal narratiboe-tan kontaktzen dira, baina haren gogoetek, ideiek eta



pentsamenduek ere protagonismo handia hartzen dute. Istorioaren amaieran, haren itzulerak orainera garamatza. Mamadou etxera itzultzeak istorioa beste ikuspegi batetik gorpuzten du. Izan ere, Mamadouk hasieran bere jaioterritik alde egin eta Espainiara heldu zen. Handik urte gutxitara berriro itzuli zen jaioterrira. Azaldu beharra dago itzulerak mundu hura erabat eraldatzeko gogoia eta nahia dakarrela. Bizimodu hobe baten bila atzean utzi zuen hura guztia orain, aldiz, aldatu nahi du eta hara itzultzen da.

## Jarduera

Sarrera gisa, liburuak aurkeztu aurretik izenburua ezagutaraziko zaie. Hartara, jakingura eta ikusmina piztuko dugu ikasleengan. Hona hemen galderak:

1. 3052 zifrak, liburuaren izenburuak, alegia, zer iradokitzen dizu?
2. Zein izan daiteke gaia?

Behin izenburuaren zergatia argituta, hau da, Murtzia eta Dakar hirien arteko distantziarena, mapa batean toki horiek koka ditzatela eta herrialde horri buruzko informazio gehiago lor dezatela.

1. Zer dakizue Senegali buruz?
2. Zergatik da ezaguna Dakar?

## Jarduera osagarria

Ikasleekin atalen izenburuez jardun dezakegu, ikuspuntu linguistikotik ere aztertuta. Hona hemen galderak:

1. Nolakoak dira izenburuak? Deskriptiboak, abstraktuak, orientagarriak al dira? Zer iradokitzen digute?
2. Badago haien arteko kronologiarik?
3. Badago aditzik, izenik? Oso luzeak al dira?

Liburuaren edukia hobeto lantze aldera, gaikako atal hauetan egituratu dugu:

1. "El Dorado".
2. Noranzkorik gabeko Odisea.
3. Europako errealitate ankerra. Errealitatearekin talka egitea.
4. Mamadou solidarioa.
5. Epilogoak. Itzuli. Itzulera.



# 1.

## EL DORADO

Azpiatalok hartzen ditu:

- > Izenez “Dia”
- > Ataya
- > Kontzientzia
- > Izurrite berria
- > Bidaiaren prestaketa

*“Afrikaren irudi baikorrak (edertasuna, integrazioa, hizkuntza aniztasuna) ez dira inon ikusten. Pobrezia, gosetea eta haur elikatu gabeak, aldiz, nonahi ikusten ditugu. Alderantziz ere gertatzen da. Izan ere, Senegaletik Madrilgo Lau Dorreak soilik ikusten ditugu baina nire herrikideek ez dituzte inoiz Madrilgo etxolak ikusi”.*

Betidanik erabili dugu “El Dorado” esapidea paradisia adierazi nahian. Izan ere, XVI. mendean Ameriketako kolonizatzaile espainiarrek erabili zuten, lurralde hura urrez jositako toki gisara irudikatzen baitzuten. Kasu honetan, Mamadou Dia-k Europa erreferentziazteko erabiltzen du.



El Dorado zentzu figuratiboan alegiazko ametsa da, eskuraezina dirudien bizimodu bat. Kolektibo batek eginiko irudizko sinesmen horrek irudiak zabalagotu eta itxuraldatu egiten ditu. Estutasunean eta etorkizun-itxaropenik gabe bizitzeak ametsezko bizimodu bat eraikitzen bultzatzen gaitu, hau da, paradisu kolektibo bat irudikatzen. Horregatik, gazte asko amuan erorita, amets hori lortu nahian bizia arriskatzera inoiz helden dira, zoriona edo euren herrian falta zaiena “El Doradon” topatuko dutelakoan.

...Mamadouk hemen bere proiektuaren berri eman eta han (Senegalen) «Europako ametsaren iruzurrak» ohartarazten duen bitartean, espainiar asko badoaz, fardela bizkarrean hartuta.

*“Gazte asko emigratu behar dute, gizarte kapitalista batean lanik edo ondasun materialik ez baduzu, ez zara inor eta. Bestaldetik, etorkin asko Senegalera ezer gabe itzultzen dira, baina ez dute gure gutxiespena sentitu beharko. Ez dira pateraz iritsiko, ezta autotan maletategian ezkutatuta ere. Hesi batetik ere ez dute jauzirik egin beharko”.* (Mariño, H. Entrevista a Mamadou Dia, publico.es, 27.05.2015).

## Jarduera

Hona hemen ikasleei egiteko galderak:

1. Mamadourentzat zer da bere herria abandonatzea?
2. Ulertzen al duzu hark zergatik hartzen duen erabaki hori? Zein da bere amaren papera? Arrazoitu erantzunak.
3. Zergatik diseinatzen du bere bizitza-proiektua amets baten inguruan?
4. Zein dira gaur egun migratzeko arrazoiak?
5. Zein antzekotasun topatzen duzu Mamadouren eta hemendik kanpo Europako beste herrialde batzuetara migratu behar duten gazteen artean? Nola ateratzen dira gure neska-mutil gazteak hemendik?

# 2.

## NORANZKORIK GABEKO ODISEA

Azpiatalok ditu:

- > Bidean
- > Lehenengo arazoak
- > Itsasoa
- > Bidaiatu
- > Ekaitza
- > Irlak?
- > Salbatuta
- > Ospetsuak Gomeran

Odisea hitza hautatu dugu Homeroren liburuaren omenez. Antzinako kontaketa horretan Odiseok (Ulises) Itakara egiten du bidaia, bere sorterrira, hain zuzen ere. Hamar urte dirauen bidaia hori txundigarria bezain garrantzitsua da, gorabehera eta estuasun handikoa ere bai. Azken batean, denok gure bizitzan noizbait egin dugun bidaia irudikatu nahi du.



Mamadou Diaren odisea hauxe da: 83 lagunekin batera toki ezezagun baterantz egiten duen bidaia. Senegaletik abiatu eta kayukoz Atlantikoa zeharkatu ondoren Gomera irlara iritsi zen, nabigatzeko kontuez ezer gutxi jakinda eta zortzi egunez baldintza lazgarriak bizita.

Ezagutzen dituzun etorkin gehienek atzean Mamadourenaren antzeko odisea bat dute, euren herrialdeetan oso gutxitan kontatu edo partekatzen dutena, hain zuzen ere. Litekeena da, bidaia hartan bizi duten itxaropen faltaz, beldurraz, arriskuez edo bizia galtzeko arriskuez edo itsasoak berak irensten dituen hildakoez mintzatuko balira, askotan inora iristen ez diren bidaia horiek egitera ausartuko lirakekeenak gutxiago izatea.

*“... Senegalera oso informazio gutxi iristen da; esate baterako, gutxitan heltzen da, kayukoren bat hondoratu dela. Itsasoak hizkuntza propioa du, kontrolaezina. Horregatik, une lazgarri horientatik itxaropenik gabeko bidaia izan zen gurea. Bosgarren egunean, hain zuzen ere, gasolarik eta urik gabe geratu ginen” (Garrido, E. Entrevista a Mamadou Dia, eldiario.es 27/11/2013)*

### Jarduera

Hona hemen ikasleei proposatu beharreko galderak:

1. Itsasoak bereizten ditu Senegal eta Europa, eta etsai bihurtzen da. Ulisesek itsasoan zehar amaitu zuen odisea. Itsasoak afrikar askorentzat Europara abiatzeko proiektuaren porrota irudikatzen du. Eztabaidagarri da ea merezi duen arrisku hori hartzea. Arrazoitu zure erantzuna.
2. Itsasoak zer irudikatzen du, zure iritziz, istorio honetan? Zer esan nahi du egilearentzat?
3. Mamadouren biziraupen-istorio hori, pateraz eginitako bidaia, hain justu ere, ezagun egiten zaizu?
4. Atlantikoaren erdian ur eta gasolarik gabe, zer espero dezakete? Non geratzen da El Dorado-ra heltzeko ideia? Zer sentitzen du protagonistak egoera horretan?
5. Nola sentituko da Mamadou Dia bizipen horien ostean?
6. Zergatik uste duzu kayukozko bidaia hori eginda dutenek ez dutela horretaz hitzik egin nahi? Ahazteko? Harrotasunagatik? Arrazoitu zure erantzuna.
7. Arriskuak merezi du? Beti? Zein egoeratan? Eta zeinetan ez? Arrazoitu erantzunak eta jarri adibideak.

# 3.

## EUROPAKO ERREALITATE GORDINA. ERREALITATEAREKIN TALKA EGITEA

Gure atal honek azpialok ditu:

- > Sorpresak Espainian
- > Ustegabeko salbazioa
- > Zergatik daude persona legalak eta ilegalak?
- > Gurutze Gorria
- > Kalea
- > Gaur egungo mundua
- > Iritsi ez zen gutuna
- > Goiz gogorra
- > Paperik gabe
- > Lan mundua
- > Esperientzia ona

*“Ongizateak igerilekudun txaleta eskatzen du, lorategi eta guzti, baina han egoteko astirik ez. Era berean, dirua ere badakar berekin, baina beldurra ere bai, bertaz gozatzeko orduan. Ildo beretik, ongizateak egongela ongi hornitua, garbia eta txukuna ematen dizu, baina han ez da inor elkartzeko... (Dia, M. 3052 Persiguiendo un sueño).”*

Mamadouk liburu honetan kontatzen du bidaia nola egin zuen itsatsontziz. Halaber, dezepzioz beteriko “El Doradorekin” egin zuen topaketa etsigarria ere kontatu nahi izan digu. Behin Espainiara iritsita ikusi ahal izan zuen bertatik bertara zein zen migratzaileen errealitatea eta zein desberdina zen, kontuan hartuta zer irudikatua zuten bere herrikerideei entzuten zietenarekin konparatuta, haiek etxera itzultzen zirenean.

*“Zure herritik alde egiten duzunean, atzean uzten dituzunen galera eta herrimina ikaragarriak dira; mundu ezezagun berri bati, aurre egin behar diozu non zure hizkuntza, usainak, zapoak, koloreak eta ohiturak desagertzen diren. Are zailagoa da, oraindik, bakardade, frustazio, desilusio eta porrotaz gain ikusten baduzu benetako errealitateak ez duela imajinatutakoarekin inolako antzik.” (Garrido, E. Entrevista a Mamadou Dia, eldiario.es 27/11/2013).*

Oro har, kultura-talka batek desorientazioa, beldurra, babesgabetasuna, desoreka, segurtasun-gabezia eta batzuetan izua ere badakartza.

Murtziara iritsita, bi mundu arras desberdin ditu aurrean: batetik, jatorrizko herrikoa, bere ohitura eta tradizio guztiekikoa, eta bestetik, bidaiaren ostean hemen topatzen duena, imajinatutakoarekin inolako antzik ez duena, presa eta abiaduraz bete-betea. Egia esan, abiadura gehiegizko mundu horrek eta beraren baldintzek ez dute haren jatorrizko munduarekin zeri-kusirik izaten. Munduok elkarrezinak dira.

Mamadouk berak bere hitzaldietan aitortzen du inoiz ez zela sentitu European bezain bakarrik. Inoizkorik gosetuen egon zen eta gau askotan kalean bertan lo egiteraino heldu zen. Diotenez, Senegalen zaila da bakarrik egoteko uneak izatea. Halaber, denek eskaintzen dizute non lo egin baita zer jan ere. Mamadou hona iristen denean, ez ditu ikusten bere kultura eta gizartean hain erroturik dauden abegikortasuna, elkartasuna eta eskuzabaltasuna. Ondorioz, are gogorrago egiten zaio gure gizartera moldatzea. Ezbairrik gabe, ilusio-galtzeak, bakardadeak eta frustrazioak be te-betean harrapatu zuten senegaldarra.

*“Oso gizarte indibidualista batekin topo egin nuen, aurreiritzi askokoa. Gizarte intelektuala zen, gizarte-mailak ezarritako mugak handiak zirelarik. Pentsa ezazu zein zaila eta nekoso den horrelako gizarte batean sartzea.”*

*“Immigrazioaren errealitatea ez da kontatzen. Migratzaileek, lotsaren lotsaz, nekez kontatzen dute oso txarto pasa dutela. Nik, aldiz, kontatzeko erabakia hartu nuen, hona ailegatuta egundoko ustekabea izan nuelako. Egitan, ez nuen espero hain txarto biziko nintzenik. Gainera, banekien jende askok etorri nahi zuela eta hauxe pentsatu nuen: neuk behintzat neure istorioa kontatuko dut, irakur dezaten eta jakin dezaten zer duten esperoan.”*

Ez Mamadouk ez afrikar gazte gehienek ere ez dute irudikatzen zer duten European zain. Itxura batera, ez zaio inori interesatzen hemen topatuko duten errealitateaz mintzatzea. Aldiz, haien itxa ropenak areagotu egiten dituzte.

Inork ez zion Mamadouri kontatu Europako migratzaileen benetako errealitatea: *“Europako El Doradok ez zuen inolako antzik neuk imajinatutakoarekin. Gero, kalean gauzak saltzen dabiltzan migratzaile horiek itzultzen dira Senegalera trajea jantzita, azken belau-naldiko sakelakoa daramatelarik. Horrek guztiak, zorritzarrez, gazteak bultzatzen ditu etxean duten guztia utzita cayuco batean sartzera. Hona iritsita dena hain etsigarria izan zen ezen ezin bainuen gauza bera egin.”* (Garrido, E. Entrevista a Mamadou Dia, eldiario.es 27/11/2013).





## Jarduera

### A) Protagonistak mendebaldeko munduaz duen hautematea eta ikuskera:

1. Migratzaileak jatorrizko lurraldeetara itzultzen direnean zergatik ez dute Europako bizikizunez ezer kontaktzen? Zerk bultzatzen ditu hori ezkutatzera?
2. Zerk harritzen du Mamadou gure mundutik?
3. Inoiz gogoeta egin duzu gure inguru hurbile naz? Uste al duzu gure bizimodu azkarregi eta estresante hau ona dela?
4. Taldeka aztertu eta hausnartu zer esan nahi duten zuentzat eskuzabaltasunak, elkartasunak eta abegitsua izateak.
5. Zein dira gure gizarteko balioak? Oraintsu aipatutakoak zure inguruan ikusten dituzu islatuta? Besteren bat gehituko zenuke? Eta zu, zeinek in identifikatzen zara ondoen?
6. Uste al duzu gure gizartean galdutako balio horiek berreskuratu beharrean gaudela? Baiezkotan bazau, zer egin liteke balio horiek berriro bultzatzeko?
7. Bestaldetik, zer dugu komunean beste kultura batzuekin? Zerk lotzen gaitu beste kultura batzuekin?

### Jarduera osagarria

“Carta a mi hermano Assane” atala ezin egokiagoa da ikasleen idatzizko maila landu eta hobetzeko. Ikasleek irudika dezatela protagonistaren neba edo arreba direla eta Mamadouri idatz diezaiotela. Gero, idazkiak elkarri trukatu, zuzenketak egin ditzakete.

### B) Kulturartekotasuna

1. Ikasgelan badago beste kultura bateko ikaskiderik?, Nongoak dira?, Ikasleek beste kultura batzuetako jenderik ezagutzen al dute?, Zer dakigu euren herriez? Eta haien ohiturez?



2. Eta besteek nola ikusten gaituzte? Inoiz galdetu diegu zerk harritzen dituen gudan?

### C) Tolerantzia

Immigrazioaren gaineko zurrumurruek bizikidetzaz baztertu eta zaildu ere egiten dute. Beraz, beste kultura batzuei buruzko aurreiritziez mintzatuko gara.

Talde txikiak eginda, ikasleen gaitasun komunikatiboa landuko dugu. Hurrengo galderak erantzungo ditugu:

1. Jendeak zer dio migratzaileei buruz?
2. Zer uste duzu, benetan, haietaz?
3. Nola deritzezu ondoko baieztapen hauei?
  - > Gizarte diru-laguntzetatik bizi dira etorkinak.
  - > Lana kendu egiten digute.
  - > Migratzaileek ez dituzte etxeak zaintzen eta auzokideak gogaitu egiten dituzte.
  - > Euren erlijioa inposatzen dute.
  - > Legeak betetzen ez dituzten dendak dituzte zer garik ordaindu gabe.
  - > Haien erruz delinkuentzia areagotu egin da.
  - > Ez dute gizarte berrian integratzeko ezelako ahalginik egiten.

### ¿Cónoces ZAS!?

**ZAS!** Euskadiko Zurrumurruen Aurkako Sarea da.

ZAS! gizarteko eta erakundeetako eragileen sare bat da, eta gizarte-sentsibilizazioko estrategia bat garatzen du, diskriminazioari eta xenofobiari aurrea hartzeko, elkarbizitza hobetzeko eta kultura-aniztasunaren potentziala aprobetxatzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu webgunean:

[www.zas.eus](http://www.zas.eus)







# Zurumuruak akatu Acaba con los rumores

Immigrazioari buruzko zurumurruek bazterkeria sortzen dute eta bizikidetza zaildu. Pentsatu apur batean hitz egin baino lehen.

Los rumores sobre la inmigración discriminan y dificultan la convivencia. Piénsalo antes de difundirlos.

**ZAs!**

[participa@portugalete.org](mailto:participa@portugalete.org) / Tel. 94 472 92 16

# 4.

## MAMADOU SOLIDARIOA

Atala hauxe da:

> Gurutze Gorria

*“Gomera irlan hirurogeita hamabi ordu edan gabe egon eta gero, boluntario batek botila bat ur eman zidan. Botilari prezio bat jartzea erabaki nuen, hau da, nire bizitza osoan handik aurrera besteren zerbitzuan egotea”. ([www.hahatay.org](http://www.hahatay.org))*

Mamadouren jarduera solidarioa hobeto ezagutzeko bere hitzak irakurri besterik ez dugu. Ezin hobeto deskribatzen du hori guztia ondoko lerro hauetan:

*“Castellóko Gurutze Gorrian espainola ikasten nuen. Han hasi nintzen espaniarrekin harremanetan jartzen eta Gazteen Gurutze Gorrian boluntariotza egiten. Larrialdietako taldekide bat izatera heldu nintzen eta handik urtebetera hasi nintzen erreskate-lanetan kostara iristen zirenei arreta ematen. Sukaldari-lanetan ibili nintzen. Gero neure paperak erregularizatzeari ekin nion. Lau urte eman nituen paperok lortzeko ahaleginetan”. (M. Dia 2012)*

Liburura itzuliz, aitortu beharrean gaude Gomera uhartean ematen dioten ura metafora polita dela.

Handik urte batzuetara, Cartagenan Mamadouk berak emango die ura etorkin egartiei.

*“Egia esan, ez neukan ia ezer. Hala eta guztiz ere, laguntzea erabaki nuen. Norbaiti lagun niezaiokeelako uste sendoa nuen. Harro eta pozik ere banengoen, Gomera boluntario hark eman zidan ur botila neuk ere beste bati itzuli ahal izateagatik”. (M. Dia 2012)*

*“Mundu guztiari gonbit egiten diot bizitzako boluntarioak izateko, hau da, elkarte batean sartzeko, ikus dezaten zein garrantzitsua den lan hori besteentzat”. (M. Dia 2012)*

Liburu honi esker, lortutako etekinekin “Hahatay son risas de Gandiol” elkarte fundatu zuen Mamadouk.

Hahatay Senegalgo irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta woloferako «Man na nekk» kontzeptua hartzen du oinarri: «lortu egin daiteke» esan nahi du. Hori dela eta, elkartearen misioa (eginez ikastea) etengabeko ekintza da, ziurtatu ahal izateko pertsona guztiak duintasunez biziko direla eta beren bizitzaren protagonista eta beren garapenaren eta askatasunaren eragile izango direla. Elkarte Mamadou Diak sortu zuen, eta haren migrazio-esperientzia bikoitzean du jatorria. ([www.hahatay.org](http://www.hahatay.org))

**Errealitatea eraldatu. Elkartasuna**

### Jarduera

Ikasleekin boluntariotzari buruzko gaia ikuspuntu orokor batetik zehatzagoetara lan daiteke hurrengokoa planteatuz:

1. Ezagutzen al duzu boluntariorik? Non laguntzen dute? Ezagutzen al duzu boluntarioen elkarerik?
2. Bilatu itzazu Interneten zure auzoko boluntariotza-elkarteak eta aukeratu zein iruditzen zaizun interesgarrien. Azaldu gero zergatik nabarmendu duzun elkarte hori besteetatik.
3. Zertan lagundu nahiko zenuke? Zure iritziz, zertan lagun diezaiekezu besteei?
4. Behin [www.hahatay.org](http://www.hahatay.org) webgunean sartuta eta aztertuta nolakoa den, zer uste duzu “Hahatay son risas de Gandiol” elkarteaz?
5. Zer iritzi duzu zure etorkizunaz? Nolakoa izango da gure mundu eroso hau hogeitau urte barru? Horrelakoa izaten jarraituko al du?





# 5.

## EPILOGOA. ITZULTZEA. ITZULERA

Epilogo (134.or.) atal guztietatik garrantzitsu eta harrigarrietako bat dugu. Mamadou bere sorterrira itzultzea erabakitzen du, bere ametsa bete ez badu ere. Hortaz, ikasleekin Mamadouren erabakia landuko dugu. Eztabaida galdera hauexen inguruan bidera daiteke:

1. Zergatik itzultzen da Mamadou?
2. Erabaki horrek harritzen al zaitu? Zu ere itzuliko zinateke?
3. Ezagutzen duzu alde egin behar izan zuen norbait eta gero itzuli zena? Nor? Nola itzuli zen?
4. Familian baduzue aspaldian Ameriketara joan behar izan zuen norbait eta gero etxera itzuli zena? Badakizue zer diren indianoak?
5. Inoiz entzun duzue ezer gerrako hurrei buruz? Zer dakizue haietaz? Haiiek guztiak hona itzuli ziren? Nor geratu zen han?
6. Mamadou sorterrira itzultzea garaipena ala porrota da zuretzat? Zergatik? Arrazoitu zure erantzuna.
7. Bere itzulerak, hots, atsegin ez zuen hura eraldatzeko gogoak, aldaketarako gaitasun eta adoreak Mamadouren istorioa ezberdin eta aldi berean, eredugarri bihurtzen dute. Bat al zator baieztape horrekin?
8. Eta zuri zer gustatuko litzaizuke aldatzea? Zure inguruan ikusten duzu gustatzen ez zaizun ezer, zure airtiz aldagarria denik?

“Europak ez zeukan nik neure buruarekin planteatutakoarekin antzik. Baina denborak aurrera egin ahala ikusi nuen zelan lortu.” (Dia 2012)

Dakigunez, badago zorigaiztoaren aurrean kikildu beharrean hauspotu egiten denik. Mamadou horietako bat da. Hala ere, erronkak, maiz, neurrigabeak eta lorrezinak izanik, frustrazioa gutaz jabetzen da eta ondorioz, etsi egiten dugu.

Jende askok Europara etorri eta espero duena ez lortuta ere, ez dute euren herrira itzuli nahi. Aldiz, hala erabakitzen dutenek ez dute hemen topatu zuten errealitatea kontatzen, horrek euren porrota aitortzea dakarrelakoan.

“...Hona iritsita eta ikustean hau ez zela ez espazio bat, ez herri bat ezta kontinente bat ere, asmamenaren poderio handiz sortutako fruitua baizik, telebistaren

egundoko boterea ahaztu gabe desengainu handia hartu nuen. Erronka nagusia iluntasun horretatik ateratzea da. Azkenik, behin jakinda zein bide dugun esperoan, aukera dezakegu zein maleta eta ekipaia beharko dugun gure egonaldiak dirauen bitartean. Ez bairik gabe, bota parerik onenak nituen; hots: borondatea eta itxaropena, nire patuaren eta bion artean zeharkatzekoak, hain justu ere. Etxera bueltatuko naiz”. (Dia, M. 3052 Persiguiendo un sueño. (2012) Murcia. Edit. Mamadou Dia)

Azkenik, ezinbestez geure buruari egiten diogun galdera hauxe da: Mamadouri merezi izan ote zion bidaia katramilatsu eta arriskugarri hura egitea? Galdera hori berori egin ziotenean bere hitzak hauexek izan ziren:

“Mamadou, merezi izan zuen cayuco-a hartzea?”

“Jende askok galdetzen dit hori. Zinez, ez zuela merezi esango nuke. Bestalde, baiezkoan nago, zeren eta bidaia hori egin izan ez banu, ez nintzatekeen ohartuko orain zer dudan inguruan.” (Garrido, E. Entrevista a Mamadou Dia, eldiario.es 27/11/2013)

“Liburu hau baliagarri da patera bat hartzea pentsatu dutenek hori egin ez dezaten?”

“Jakina. Liburu honek helburu asko du. Haietako bat da jendea ohartaraztea ezkutuko immigrazioaren errealitateaz eta zer dagoen horren guztiaren atzean. Beste bat da Afrikan azaltzea Europako bizimodua nolakoa den; hots, jendeak jakitea zer dagoen hemen, ez direla denak aberatsak; hemen ere badagoela euren txirotasuna. Azkenik, nahi izan dut, afrikarrek euren garapenean sineste.” (Garrido, E. Entrevista a Mamadou Dia, eldiario.es 27/11/2013)

Behin liburua aztertuta eta unitatea amaitze al dera, ikasleekiko debatea bultzatuko dugu galdera hauetaz baliatuta:

1. Irakur ezazu arretaz aurreko paragrafoa eta baliotsi ezazu zure ikuspuntutik zertarako balio izan duen liburu-testigantza honek. Ados al zaude Mamadouren ikusmoldearekin?
2. Benetan merezi izan zion bidaia gure protagonistari?
3. Zure aburuz, zergatik idatzi zuen Mamadouk liburu hau?



# ETORKIZUNA?

## Ametsei segika

Behin liburua aztertuta eta atal desberdinak landuta, etorkizunaz mintzatzeko ondoko galdera hauek luzatu nahi ditugu. Izan ere, bai Mamadouren etorkizunaz bai ikasleen etorkizunaz mintzatzeko gara:

1. Zer etorkizun izango du Mamadou Diak? Senegalen jarraituko al du? Ametsak lortuko al ditu?
2. Inoiz pentsatu duzu bizimodua ateratzera beste herrialde batera joan beharko zenukeela? Ikusten duzu zeure burua beste herrialde batean?

3. Bidaiak Mamadou eraldatzen du. Zergatik? Zein aldaketa bizi izan zuen? Zergatik?
4. Mamadou bezalako gazteen bizimodua zeharo desberdina da gurearen aldean. Halarik ere, zer duzue komunean haiekin? Elkarren antzik, bai? Bizimodu gogorak gure protagonista bezalako etorkinak azkar haztera behartzen ditu. Hemen noiz gertatzen da hori?

Gaur egun, Mamadou Dia hainbat proiektutan ari da lanean. Elkarrearen (Hahatayren) eta Mamadouren sare sozialetan daukazue horiei buruzko informazio guztia. Jarraitu!



# TOPAKETA BATEN ISTORIA



Proiektu honen abiaburua denok ezagutu beharreko istorio hunkigarri hauxe dugu:

Nerea Pérez-Arróspidek, getxotarra eta ogibidez arkitektoa, Senegaleko Saint-Louis-eko enpresa baterako lan egiten zuen Mamadou Dia ezagutu zuenean. Ondoren, "Hahatay son risas de Gandiol" elkartearekin harremantzen hasi zen Mamadou Diarekin batera, eta berarekin proiektu batzuk prestatu zituen. Arkitektoa izanik, Gandiolen zentro bat eraikitzeko proiektu bat diseinatu zuen.

Nereak, 29 urte zituela, Senegalen 2015eko irailaren 12an, Senegalen izandako auto-istripu batean bizia galdu zuen tamalez. Proiektua eten egin zen.

Hala eta guztiz ere, Nerea omendu nahian, amaitu gabe utzi zuen proiektuari berriro ekitea erabaki zuten hark eginiko plano eta marrazkiei jarraiki.

Horren ondorioz, "Centro Cultural Sunu Xarit Aminata" proiektua abian jarri zuten. Senegalen Nereari Aminata izen afrikarra ezarri zioten eta izen horrekin ezagutzen dute denek.

Erabilera anitzeko zentro horrek helburu du Gandiolen (Senegal) gazteek hezkuntza ez-arautua jasotzea. komunitatearen topagunea ere izan nahi du, garapen jasangarria maila guztietan lortuko badugu esku-hartzeari ezinbesteko tresnatzat jotzen baita. Proiektuari beste bultzada bat emate aldera, "A las 15:00" izeneko bigarren liburua editatu zuen Mamadouk. Berriro ere, kontakizun pertsonala zein kolektiboa dugu aurrean.

Nerea Pérez-Arrospideri esker izan genuen gure artean Mamadou Dia Portugaleten, 3052 liburua eta Gandiolen Hahatay Son risas proiektua besapean zekartzalarik. Izan ere, mundua aldatzeko ametsa zuten.

Gaur, zoritxarrez, Nerea ez dago gurekin. Hala eta guztiz ere, Mamadourekin eta beste hainbatekin batera ekin zion proiektuak aurrera darrai: [www.centroculturalaminata.org](http://www.centroculturalaminata.org)

- **BIDEOA:** "Esta es la historia de un en cuento". <https://www.youtube.com/watch?v=-6dXMZqteFo>
- **SAR ZAITEZ** [www.centroculturalaminata.org](http://www.centroculturalaminata.org) webgunean eta ikusiko duzu nolako proiektua den.

Aminata Kultura Etxea 2017ko abenduaren 31n inauguratu zen, eta, orduetik, bertako taldeak —profesionalizatzen ari diren Gandiolen 4 gazte osatua— eta komunitateak programatutako jarduerak egiten dira bertan. Azken 5 urte hauetan, 8.000 pertsonak baino gehiagok gozatu dute bertan egindako jarduerak.





# EBALUAZIOA EGITEKO

## Irakasleentzako ebaluazioa

1. Uste al duzu unitate honek ikasleen enpatia sakondu eta lantzeko balio izan duela?
2. Baliagarri al da ikasleak gizarte-errealitateaz ohartarazteko eta pentsamendu kritikoz ikusarazteko?
3. Balio izan du, zure aburuz, boluntariorza eta inplikazio pertsonala sustatzeko?
4. Haientzat interesgarria izan al da?
5. Gomendatuko zenieke ikas-unitate hau beste irakasle batzuei?

## Ikasleentzako ebaluazioa:

1. Zer ikasi duzu ikas-unitate honekin?
2. Ezer aldatu al du zure baitan?
3. Gaiaz lehen baino informazio gehiago al duzu?
4. Zuretzat interesgarria izan al da? Zergatik?





# IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOAREN METODOLOGIAZ GEHIAGO JAKITEKO

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa (IZS) metodologia berria da, zeinek komunitatearentzako zerbitzuan eduki, trebetasunen eta balioen ikaskuntza integratzen baititu.

Hezkuntza-proposamen honek proiektu berean ikaskuntza eta komunitatearentzako zerbitzua uztartzen ditu uztartu ere. Proiektuan arazo jakin batekiko motibazioa duten parte-hartzaileek ekintzaren bat egiten dute inguru hori hobetze aldera.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa hezkuntza-proiektuak gizarte-erabilera du, alegia, gizartearentzat baliagarri da. Ikaskuntza eta zerbitzua elkarloturik daudenez, haien ondorioak areagotu eta nabarmenagotu egiten dira. Ikaskuntzak komunitatearentzako zerbitzua hobetzen du, bizi-kalitatean eta berdintasunean irabazten baitu. Zerbitzuak ikaskuntzari zentzua, esanahia ematen dio. Hala, errealitatera igarotzen da ekintza jakin bati esker.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa, labur esanda, hezkuntza-eredua da, zeinek zentzua hartzen baitu bere osagai hauexek lotuta:

**Ikasketa:** hezkuntza-mailako asmo esplizitua du, eza-gupenak, trebetasunak, jarrerak eta balioak bereganatzekoa, hain zuzen ere.

**Zerbitzu solidarioa:** parte-hartzaileak bultzatzen ditu komunitatearentzako zerbitzu bat egitera.

**Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa:** ikaskuntzari lotzen dio herritar aktibo eta parte-hartzaileen jardura.

Zerbikas Fundazioa fundazioak emandako definizioa da. Gehiago jakiteko:

[www.zerbikas.es/guias-practicas](http://www.zerbikas.es/guias-practicas)

## Mamadou Diaren bideoak

Sueños de Senegal (RTVE)

[www.rtve.es/play/videos/en-portada/suenos-de-senegal/5895607](http://www.rtve.es/play/videos/en-portada/suenos-de-senegal/5895607)

## 3052 Carta a mi hermano Assane

[www.youtube.com/watch?v=uXjo2a-yXiA](https://www.youtube.com/watch?v=uXjo2a-yXiA)

[www.youtube.com/watch?v=kU04hXs7ayY](https://www.youtube.com/watch?v=kU04hXs7ayY)

## HAHATAY SON RISAS DE GANDIOL

[www.hahatay.org](http://www.hahatay.org)

## LIBURUAREN ARGITALPENAREN 10. URTEURRENA (2022)

[www.youtube.com/watch?v=AueU43CNmew&t=2s](https://www.youtube.com/watch?v=AueU43CNmew&t=2s)

UNITATE HAU WEBGUNE HAUETAN AURKI DEZAKEZU

[www.portugalete.org](http://www.portugalete.org), [www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org) eta [www.hahatay.org](http://www.hahatay.org)

BESTELA, HELBIDE HAUETARA IDATZITA ESKATU: [info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org) edo [info@hahatay.org](mailto:info@hahatay.org)



Ayuntamiento de Portugaleteko Udala



Ikas-unitate honek Mamadou Dia senegaldarraren "3052 Persiguiendo un sueño" (2014) liburuan du oinarri.

[www.hahatay.org](http://www.hahatay.org)

## Egileak

**Begoña Alcedo Momoitio:** Portugaleteko Udal itzultzailea.

**Raimundo Parreño Martínez:** Gizarte Ongizate teknikaria. Portugaleteko Udalaren Gizarte Parte-hartze eta Berrikuntza.

## LAGUNTZAILEAK

**Noemí Pastor Martínez:** Portugaleteko Udalaren euskara teknikaria.

**Jone Albizu Puente:** Portugaleteko Santa María ikastetxeko Lehen Hezkuntzako koordinatzailea.

## 2022AN EGUNERATUA

Itziar Larrinaga – Art Izar  
Hahatay Son Risas de Gandiol  
Kultura Communication y Desarrollo KCD ONGD

## ARGAZKIAK

Roberto Miguel Gamarra  
Hahatay Son Risas de Gandiol